

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

537/2025 Foru Agindua, abenduaren 16koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean, Administrazio Orokorreko eskalan, kudeatzaileen azpieskalan, A taldean, A2 azpitaldean, karrerako funtzionario izateko 2019ko lan eskaintzari dagokion deialdian (kodea: 2119)

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren abenduaren 21eko 600/2022 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario izateko deitutako hautaketa prozesua arautzeko oinarri orokorrei.

Abenduaren 22ko 608/2022 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean, Administrazio Orokorreko eskalan, kudeatzaileen azpieskalan, A taldean, A2 azpitaldean, karrerako funtzionario izateko deialdiari eta hura arautzen duten oinarri espezifikoiei (kodea: 2119).

Hautaketa prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gainditu duten izangaiak izendatzeko proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira Administrazio Orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalako A taldean A2 azpitaldean.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, bat etorritz dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean, Administrazio Orokorreko eskalan, kudeatzaileen azpieskalan, A taldean, A2 azpitaldean, karrerako funtzionario izateko 2019ko lan eskaintzari dagokion deialdia gainditu duten izangaiak (kodea: 2119), jarraian adierazten diren lanpostuetan:

IZENA/NOMBRE	KODEA/CÓDIGO	LANPOSTUA/PUESTO DE TRABAJO
Jorge González García	1344.005	Leihatila bakarreko administraria
Aitor Rodríguez Vergara	1342.012	Zuzeneko Zergetako administrari likidatzailea
Borja Crespo Angulo	1359.001	Tok. Adm. ekon. aurrek. kontr. lag. teknikaria
Cristina Nogales Jubera	1346.012	Zerga agentea
Jose Angel Respaldiza Meaza	1346.002	Zerga agentea
Ana Mª Mena Domínguez	1343.004	Zuzeneko Zergetako administrari likidatzailea
Laura Ortiz de Landaluze Azcona	1343.002	Administrari likidatzailea
Miguel Bardera Barbolla	1346.003	Zerga agentea
David García Roque	1342.004	Zuzeneko Zergetako administrari likidatzailea
Eduardo González Torre	1346.006	Zerga agentea
Irati Armentia Mendia	1342.008	Zuzeneko Zergetako administrari likidatzailea

IZENA/NOMBRE	KODEA/CÓDIGO	LANPOSTUA/PUESTO DE TRABAJO
Agurtzane Buzarco Galan	1343.001	Zuzeneko Zergetako administrari likidatzailea
Janire del Tio Gómez-Barredo	1376.001	Likidatzailea
M ^a Aranzazu Alonso Bello	1376.005	Likidatzailea
Marina Valle Castillo	1376.002	Likidatzailea
Raquel Arce Balluerca	1344.007	Leihatila bakarreko administraria
Paula Valdecantos de Echave-Sustaeta	1376.003	Likidatzailea
M ^a Blanca Pérez Fernández de Arroyabe	1376.004	Likidatzailea
Marina Echevarria Hernandez	1376.006	Likidatzailea
Sara Martinez Rodriguez	1344.001	Leihatila bakarreko administraria
Monica Duran Lacanal	1344.003	Leihatila bakarreko administraria
Irene Achutegui Peña	1344.004	Leihatila bakarreko administraria
Maria Aranzabal San Vicente	1344.006	Leihatila bakarreko administraria
Natalia Meizoso Gomez	1344.008	Leihatila bakarreko administraria

Bigarrena. Izendatutako pertsonen 2026ko urtarrilaren 14an hartu beharko dute jabetzan esleitutako lanpostua.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera izateko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak esleitutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortua izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka, jakinarazpen hau jaso ondorengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 16a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR